



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



BIZTANLERIAREN  
MAHAIA

**Iraunkortasunaren kulturak Bizkaian izan  
duen aurrerapenari buruzko pertzepzioa**

## HELBURUAK

- Bizkaiko biztanleek iraunkortasuna eta garapen iraunkorra kontzeptuak zenbateraino barneratu eta ulertzen dituzten zehaztea.
- Iraunkortasunari buruz gizarteak dituen kezkek zein gai eta arlotan kokatzen diren jakitea, baita kezka horien arrazoiak ere.
- Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasunaren alde hartu dituen jokabideen eragina eta balorazioa ebaluatzea, eta balorazio hori azaltzen duten arrazoiak ulertzea:
  - Jarduera horiek ezagutzen ote diren aztertzea
  - Gizartearen kezkei erantzuten ote dioten jakitea
  - Jarduera horiek nola baloratzen diren jakitea
  - Balorazioa horren kausak zehaztea
- Ase gabe dauden eskariak edo sortzen egon daitezkeen eskari berriak antzematea

## METODOLOGIA

Sei eztabaida-talde honako ezaugarri sozial eta demografikoak dituztenak:

50 urte edo gehiagoko gizonak eta emakumeak lehen mailako ikasketak dituztenak eta Bilboko metropoli-areatik kanpo bizi direnak

50 urte edo gehiagoko gizonak eta emakumeak erdi mailako eta goi mailako ikasketak dituztenak eta Bilboko metropoli-arean bizi direnak

30 eta 49 urte bitarteko gizonak eta emakumeak lehen mailako ikasketak dituztenak eta Bilboko metropoli-arean bizi direnak

30 eta 49 urte bitarteko gizonak eta emakumeak erdi mailako eta goi mailako ikasketak dituztenak eta Bilboko metropoli-arean bizi direnak

18 eta 29 urte bitarteko gizonak eta emakumeak lehen mailako ikasketak dituztenak eta Bilboko metropoli-areatik kanpo bizi direnak

18 eta 29 urte bitarteko gizonak eta emakumeak erdi mailako eta goi mailako ikasketak dituztenak eta Bilboko metropoli-areatik kanpo bizi direnak

## IRAUNKORTASUN KONTZEPTUAREN ULERMENA

### Ematen zaizkion esanahi orokorrak:

- Iraun, mantendu
- Oreka
- Oinarri edo funts egokia daukan zerbait
- Denboran irauten duena
- Ongizatea

### Kontzeptua hainbat arlotan aplika daiteke:

- Ekonomia
- Politika
- Erljioa
- Familia

### Ematen zaizkion esanahi zehatzak:

- Ingurumenari kalte egin gabe ekoiztea
- Natura babestea
- Ingurumena lehengoratzea
- Zentzuzko kontsumoa, batez ere baliabide berriztaezinak direnean
- Alternatibak bilatzea baliabide berriztaezinentzat
- Energia berriztagarriak erabiltzea
- Klima-aldaketa saihestea
- Iraunkortasun planak
- Tokiko Agenda 21

## Non entzuten da iraunkortasunaz hitz egiten?

- Gizarte-komunikabideetan: prentsa, irrati eta telebista
- Bizkaia Maitea Aldizkarian
- Sentsibilizazio kanpainetan
- Hezkuntza sistemak informazioa zabaltzen du:
  - Ikasleei
  - Familiei
- Lanerako prestakuntzan:
  - Enpresetako prestakuntza, langileen ingurumen arloko araudia jakin dezaten
  - Enplegurako prestakuntza moduluak lanik gabe daude pertsonentzat
  - Tokiko administrazio publikoan lan egiten duten pertsonen duten informazioa
  - Tokiko Agenda 21

## GARAPEN IRAUNKORRA KONTZEPTUAREN ULERMENA

Garapen iraunkorra = iraunkortasuna

Garapen iraunkorra = garapen ekonomiko iraunkorra

Garapen iraunkorra = ingurumena errespetatzen duen garapen ekonomikoa, hurrengo belaunaldien beharrak kontuan hartuta

## BIZI KALITATE KONTZEPTUAREN ULERMENA

Funtsezko kontzeptu honetatik abiatuta, kolektibo guztiek lortzen dute iraunkortasunaz eta garapen iraunkorraz duten diskurtsoa integratzea.

Ongizate egoera objektiboa eta subjektiboa; gutxieneko ongizate objektibo batzuk behar dira pertzepzio subjektiboa lortzeko.

## Bizi-kalitatearen alderdi erabakigarriak



BIZI-KALITATEA

Garapen ekonomikoa, hau da, ordainsari nahikoa eta zentzuzko ordutegia.

Garapen soziala, baliabideak eskuragarri dauden heinean: etxebizitza, osasuna, hezkuntza, bazterketa arriskuan dauden taldeentzako laguntza publikoa, aisialdirako ekipamenduak (kultura, kirola), garraio publikoa, administrazio publiko eraginkorrak eta zuzenak.

Ingurumen osasungarria: parkeak, pasealekuak, kutsadurarik eta zaratarik eza ...

Bizi-kalitatearen alderdi subjektiboak: denbora libre izatea, gizarte eta famili harreman asegarriak, garapen pertsonala eta autonomia handia, gozatzen jakitea



## Bizi-kalitaterako lehentasuna duten elementuak



## BIZI KALITATEAREN PERTZEPZIOAREN BILAKAERA BIZKAIAN

- Oro har, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi-kalitateak bilakaera positiboa izan duela hautematen da.
- Hala ere, bi aldi oso desberdinak bereizten dira:
  - Krisi aurrekoa, bizi-kalitatea asko hobetu zen garaia
  - Krisi ostekoa, bizi-kalitatea oso azkar hondatzea espero den garaia

## Hobetu diren arloak

### Ingurumen baliabideak

- Uraren egoera eta erabilera arduratsua egin behararen kontzientzia
- Energia aurreztu eta energia berriztagarriak ezarri beharraz hartu den kontzientzia
- Hondakinen tratamendua eta birziklatzea

### Azpiegiturak

- Errepideei dagokienez hobetu egin da, eta batzuetan ingurumen-eragin positiboa izan du hiriguneetan
- Estolderia
- Argiteria publikoa
- Gas naturala sartzea

### Hobekuntzak zerbitzu eta ekipamenduen kalitatean

- Hezkuntza zerbitzuak
- Osasun zerbitzuak
- Garraio publikoa
- Bidegorriak
- Minusbaliotasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna
- Kirol eta kultur ekipamenduak
- Bazterketa arriskuan daudenen edo behar bereziak dituztenen arreta
- Euskarari laguntzea
- Iraunkortasunari buruzko informazioa eman eta kontzientzia sortzea hiritarrengan.

### Hiriguneetako ingurumena

- Hirietako ekipamendu hobeak eta erakargarriagoak
- Kaleak oinezkoentzako bihurtzea
- Parkeak
- Espazio publiko garbiagoak
- Zarata gutxitzea, batez ere gauetan

## Okerrera egin duten arloak

- Eraikitako espazioa neurrigabe haztea
- Argi-kutsadura
- Obrek egunez ateratzen duten zarata, batez ere Bilbo Handian
- Azpiegitura handiek baso eta mendietan izan duten eragin negatiboa
- Enpresei ez exijitzea ingurumenean eragindako kalteak gutxitzeko

## ONDORIO NAGUSIAK

Iraunkortasuna eta garapen iraunkorra kontzeptu ezagunak dira Bizkaiko biztanleen zati handi batentzat; hala ere, talde batzuek gabezia handiak dituzte kontzeptu horien ulermenean eta ezagutzan.

Bizkaia 21 Programan eta Iraunkortasunean Hezteko Ekintza Egitasmoan aurreikusitako baliabideek arrakasta izaten ari dira. Hala ere, lanean jarraitu beharra dago talde esanguratsu batekin.

Iraunkortasuna terminoa ezagutzen dutenek uste dute garapenak orekatua izan behar duela, eta ingurumena eta hurrengo belaunaldien beharrak errespetatu behar dituela. Terminoa ezagutzen ez dutenek hazkunde ekonomiko iraunkorrarekin lotzen dute garapen iraunkorra.

## Iraunkortasunaren kulturak Bizkaian izan duen aurrerapenari buruzko pertzepzioa

Garapen ekonomikoa, garapen soziala -oinarrizko zerbitzuak biztanleen eskura izatea- eta ingurumenaren babesa dira bizi-kalitatearen alderdi funtsezkoenak. Garapen iraunkorrak biztanleek bizi-kalitateaz duten ikuskera osatzen du.

Ingurune naturalaren babesa garapen prozesuaren mugatzaile gisa ageri da. Garapen ekonomikoari ñabardurak egiten zaizkio beti: ingurumenean duen eragina gutxitu beharra, batetik, eta parte-hartze sozialaren bidez adierazitako behar kolektiboak asetzera bideratu beharra, bestetik.

Oro har, Bizkaian bizi-kalitatea hobetu egin dela uste da; dena den, pertzepzio horri azken bi urteotako bilakaera ekonomiko negatiboa eransten zaio, eta zalantza-sentimendua sortzen da etorkizunari begira. Okerrera egin duten arloak, berriz, hirigintzaren hazkunde azkarra eta azpiegitura handiek baso eta mendietan duten eragin negatiboa dira. Etorkizunari begira, kexa-iturri diren arrazoi nagusiak iraunkortasunaren arloan garatu beharreko oinarriak izan daitezke.

Biztanle gehienek ustez, Aldundia eta udalak izan dira bizi-kalitatea hobetzen gehien lagundu duten erakundeak.